

{ koaderno } Nerea Ibarzabal Salegi

Arrainak lurpean

Orduan, denbora-pasa gisara, jangarriak ez diren arrainak arrantzatzen dira; us-
tel ez daitezen, kartelak jarri dituzte
hondartzetan zehar, arrantzaleei arrai-
nak harrapatu bezain pronto hondarpe-
an lurpera ditzaten eskatuz». Claude Le-
vi-Straussek idatzi omen zuen hau “Tristes
tropiques” liburuan, eta Julio Cortazarrek “Rayuela”-
n jaso zuen. Metafora bat izan zitekeen, baina Levi-
Strauss antropologoak benetan ikusi zuen omen zi-
tuen kartel horiek Fire Islanden, Long Islandeko
(AEB) hondarrezko irla luzanga eta fin batean.

Baina errealitatean gertatu izanak ez dio metafora
izaera ukatzen hain irudi esanguratsuari, zelan ba. Po-
esia batzuk idatzita datoz eta bertso batzuk eginda,
gaia entzute hutsarekin. Eta Fire Island ere gurea da,
denona; zeresanik ez azken
egun –urte, bizi, aro– me-
diatiko hauean, non politi-
karen monopoliodunek
hondartzak kartekez bete
dizkiguten. Baina beste
maila batean gaude dagoe-
neko, orain ez baita aski
arrainak estaltzearekin.
Orain lurrekoa baino hon-
dar hobe saltzen duten
postutxoak jarri dituzte,
orain arrain usaina neutra-
lizatzeko proiektu bat abia-
tu dute zortzi enpresak, orain inbertsore batzuek lur-
muturraren zatirik handiena berenganatu dute,
bertan arrain ez-jangarriei buruzko museo bat egiteko,
orain hasi dira esaten modan dagoela arrain ez-janga-
rriak jatea, eta beharbada behartsu estilodunek bat
egingo dute korrante berri horrekin, orain jakin dugu
arrainek gure antidepresiboen eta eguzkitako kremen
kimikoak daramatzatela barruan, eta ikusi beharko da
zelan hobetu arazte sistema, sustantzia horiek ez de-
zaten itsasoan amaitu. Hausnartu genezakeen baita
ere ea zergatik bizi diren pertsonak triste eta zer kre-
ma pozoitsu zabaltzen ditugun azalean, baina hori ez.

Hainbeste mutatu du gure irla luzangak, non ez
baikara ausartzen gure oraingo arazoan hasierako

errora joaten. Are gehiago –hare gehiago–, ez dugu
saiatu ere egin nahi. Ezintasun interesatu bat geure-
ganatu dugu, nagi kroniko bat, soilik ondorioen epe
laburreko konponbideetan lubakitzeko behar bat,
dagoeneko arrain gehiago dauzkagulako lurpean
uretan baino, itsasoa lekualdatu egin dugulako ia,
eta arazoan errora joateak suposatuko luke iradoki-
tzea arrainen arrantza eta lurperatze sistematiko ho-
nek ez daukala ezelako zentzurik. Eta hori litzateke
birziklatzeko modu eraginkorrek proposatzea beza-
lakoa, behin erraustegi bat egin eta gero. Errora,
errore.

Horrelakoak proposatzen dituztenek garesti or-
daintzen dute, laster baztertzen ditu irla luzangako
mass media-k. Errora? Azken lerrora. Erotzat joko zai-
tuzte, arriskutsutzat, gezurtizat, barre egingo dizute

Errora? Azken lerrora. Erotzat joko
zaituzte, arriskutsutzat, gezurtizat, barre
egingo dizute etxe oneko semeek,
arrainen arrantza eta lurperatzean
oinarritzen baita gure estruktura herrena

etxe oneko semeek, arrainen arrantza eta lurperatze-
an oinarritzen baita gure estruktura herrena. Arazo-
en oinarriari erreparatzea errudunak bistaratzea da,
eta Fire Islanden ez gaude hori barkatzeko.

Eta bitartean geroz eta urrutiago gaude errotik, ge-
roz eta jaioberri gehiagok erabiliko dute “betidanik”
hitza gaurko kaosa definitzerakoan, edo ez, agian ge-
roz eta gertuago gaude, geure muga ezagutu, eztanda
egin eta hutsetik hasteko. Baina zergatik iruditzen
zait ezetz, eutsi egingo diola estruktura ugertu ho-
nek, jarriko zaizkiola adabakiak eta hortxe jarraituko
duela, usteldua baina desegin barik, metalen aleazio
ez-puru eta maltzur baten etenik bako aktibitateari
esker –edo–. Ez dut telebista piztu nahi. •